

## Txapitelako harria

*Hondarribia*, 18. zk., 1988-02: 9.

Hondarribiko espigoitik Bidasoaren bokalera begira jartzen den turista askorentzat, harrigarria da ibai hau bitan zatitzen duen marra zuri-txukun batena arrastorik ez ikustea.

Eta marraren gainean karabinero batzu ere!

Egitazko mugaren seinaleak hauek baitira gaur egun, bandera eta guzti.

Hendaiatik Hondarribia begira daudenak modu beretsuan pentsatuko dute.

Mugak, non nahi, badu halako misterio kutsu bat.

Gure ibaiaren mugapenak badu, alde batetik, historia bat, eta, bestetik, sorrerako misterioa ere. Lehen puntutik: 1) Historia idatziak Akitania-Vasconia ezagutzen du aurrena ibaiaren eskuineko bazterrean, eta Vasconia soilik ezkerrekoan; 2) 1152an ezkontza bidez, Akitania eskualduna dena Ingalaterrako Koronapean geratzen da, eta ingelesak ditugu ofizialki Ifarraldean hiru gizaldiz, 1451 arte, biztanleak eta bertako erakundeak eskualdunak badira ere; 3) gero, ingelesak eta prantsesak konpontzen direnean, frantsezen koroipean ageri da lurralde hori, nahiz eta orain eta beti hor bere erakundeekin bizi direnak eskualdun berak ari lanean.

Laborantzan eta arrantzan.

Hegoan, euskaldunak beti, hauek Gaztelaren monarkian sarturik, eta Nafarroan.

Makropolitikako gora-behera hauen azpitik eta barrutik, Unamunok infraistoria deitzen zioen adierazgarri den zerbaitek jarri duen marka bat geratu da Bidasoa inguruan bizi den gizarteko historian: *Txapitelako harria*.

Mugarri hau Endarlazatik gertu, ibaibazterrean, harkaitzaren gainean zutik. Hondarribiar eta lapurditarrek batera jarri zuten, eta inork ez daki noiztik, latinez (garai hartan sinesgarria izateko beharrezko zen latinez gauza serioak esan); *ab initio mundi*; euskaraz mundua mundu zenetik, esango genuke; eta zera adierazteko: hau da Lapurdi eta Gipuzkoaren muga, eta Hondarribiko eta Hendaiako itsasoko marea bizenek honeraino iristen direnez gero, ibaiaren bokaletik honarte kokatuak dauden herriek izango dute ur hauetan arrantzan egiteko eskubidea.

Hau da Harri honen esan nahi nagusia hasiera batean.

Geroztik egin da tratu ofizialik: 1856-1857; baina XV. gizaldiaz gero paperetan agertzen den mugarri hau, Txapitelekoa, da muga internazional faltsua izango denaren oinarri.